

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan, hasiera batean, 10 herrialde ezberdinetako janaria izango dugu. Bezero kopurua handitu nahi dugunez, enpresan poliki-poliki beste herrialdetako janaria ekartzen hasiko gara. Modu honetan, herrialde ezberdinetako bezero gehiago erakarriko ditugu. Horrez gain, ostegunero eskaintzak egingo ditugu. Adibidez: 6 produktu erosteagatik, gutxien balio duten 2 produktu oparituko diegu bezeroei; bezero batek 10 euroko kontsumoa egiteagatik, zozketa batean parte hartzea; 10. erosketa egiterakoan hurrengo erosketan 5 euroko deskontua.

Bestalde, gure enpresa ezagutzera eramateko, larunbat goizetan herriko plazan gure produktuen dastaketa egingo dugu. Hau da, gure produktuekin, herrialde ezberdinetako pintxoak prestatuko ditugu eta pintxo horiek saldu ditugu, 1,5€tan. Modu dinamiko batean, herriko jendea gure produktuak dastatuko ditu eta guk sarrerak edukiko ditugu pintxo horiek saltzeagatik.

Halaber, gure instagrameko kontuan (@mundukobira) eskaitza horien berri argitaratuko ditugu. Gainera, bezeroekin harreman gertuagoa izateko, instagramen eta tik token gure egunerokotasunean zer egiten dugun kontatuko diegu gure jarraitzaileei: Paketeak nola iristen diren, gure langileei enpresaren parte nola sentiarazten diegu eta gure enpresaren idea nola bururatu zitzaigun.

Aurreko guzti horretaz gain gure bezeroekin harreman estua, zabala, dinamikoa eta eroso lortzeko laguntza pertsonala ere emango dugu. Gure enpresara etorri edo enpresako telefono fijora deituz (9439897654).

Beste aldetik, zerbitzu automatizatua eskainiko dugu. Hau da, gure web-gunetik ([www.mundu-bira.com](http://www.mundu-bira.com)) bezeroak gure dendako produktuen eskaria egin dezakete eta gure web-gunean izena emateagatik, bezeroek %5eko deskontuak lor ditzakete.